KONTRATAZIO PROZEDURA IREKIA ARAUTZEKO BALDINTZEN PLEGUA:	PLIEGO DE CONDICIONES REGULADORAS DE PROCEDIMIENTO ABIERTO DE CONTRATACIÓN:
AGORROSIN KIROLDEGIARI ERANTSITAKO TABERNA-JATETXEAREN USTIAKETA ALOKAIRU BIDEZ ESLEITZEA	**ADJUDICACIÓN MEDIANTE ALQUILER DE LA EXPLOTACIÓN DEL BAR-RESTAURANTE ANEXO AL CENTRO DEPORTIVO DE AGORROSIN**
I- KONTRATUAREN EDUKIA	**I- CONTENIDO DEL CONTRATO**
1.- XEDEA	**1.-OBJETO**
Lizitazio honen xedea da "Bergarako Bihargitza 98, S.A."ren (aurrerantzean Bergarako Bihargitza) jabetzakoa den Bergarako Agorrosin kiroldegiari erantsitako taberna-jatetxearen ustiaketa alokairu bidez adjudikatzea, baldintza ekonomiko-administratiboen plegu honi eta baldintza teknikoen pleguari jarraituz.	Constituye objeto de la presente licitación la adjudicación de la explotación, mediante alquiler, del bar-restaurante anexo al centro deportivo de Agorrosin de Bergara, propiedad de "Bergarako Bihargitza 98, S.A." (en adelante Bergarako Bihargitza), de conformidad con el presente pliego de condiciones económico-administrativas y con el pliego de condiciones técnicas.
Arrazoizko txostenean jasota eta arrazoituta dagoen bezalaxe, kontratuak sorta bakarra dauka.	Tal y como consta y se justifica en el informe razonado, el contrato se constituye en un único lote.
Bergarako Bihargitzako Administrazio Kontseilua da organo kontratatzailea, eta baita kontratuaren erantzulea ere.	El órgano contratante y responsable del contrato es el Consejo de Administración de Bergarako Bihargitza.
Espediente zenbakia: 2024KOZB0005	**Expediente nº**: 2024KOZB0005
2.- EPEA	**2.- PLAZO**
Alokairu kontratuak lau (4) urteko iraupena izango du, kontratu formalizatzen den hurrengo egun baliodunetik zenbatzen hasita.	El contrato de alquiler tendrá una duración de cuatro (4) años, a partir del siguiente día hábil al de la formalización del contrato.
3.- KONTRATUAREN PREZIOA (ERRENTA) eta LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA	**3.- PRECIO DEL CONTRATO (RENTA) y PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN**
Hileko gutxieneko alokairua 756,64 eurokoa (BEZa barne) izango da. Lizitatzaileek prezioa hobetu ahal izango dute; alegia, kopuru hori gorantz hobetu ahal izango da. Prezioan ez da berrikuspenik egingo alokairu-kontratuaren	El alquiler será, como mínimo, de 756,64 euros mensuales (IVA incluido), precio que podrá ser mejorado por las licitadoras en sentido ascendente. No se realizarán revisiones en el precio durante toda la duración del contrato de alquiler. En ningún

I.F.K.: A - 20 / 656948

iraupen guztian zehar. Ezingo da, inolaz ere, prezio baxuagorik eskaini. Adjudikazio-hartzaileak eskainitako prezioa ordainduko da.	caso podrán ofertarse precios inferiores. Se abonará el precio ofertado por la adjudicataria.
Lizitazioko oinarrizko aurrekontua: 36.318,72 euro (lau urteei dagokiona).	**Presupuesto base de licitación:** 36.318,72 euros (correspondiente a los cuatro años).
4.- BERMEAK	**4.- GARANTÍAS**
Ez dagokio behin-behineko bermerik eratzea.	No procede la constitución de garantía provisional.
Kontratazio-organoak, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua luzatuko dio, **1.000** euroko bermea eratzeko gehienez ere 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Bergarako Bihargintzak ofizioz egiaztatuko du eratu izana.	El órgano de contratación requerirá a la licitadora que haya presentado la mejor oferta para que constituya una garantía de 1.000 euros dentro del plazo de diez (10) días hábiles a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento. Bergarako Bihargintza verificará de oficio su constitución.
Bermea transferentzia bidez egingo da honako kontu korronte honetan: Kutxabank ES94 2095 5070 79 1061075569. Kontzeptuan espedientearen zenbakia eta kontratuaren xedea aipatu beharko dira.	La garantía se hará mediante transferencia en la cuenta corriente Kutxabank ES94 2095 5070 79 1061075569. En el concepto se deberá hacer mención al número de expediente y al objeto de contrato.
Kontratua **aldatzearen** ondorioz, haren balioak aldaketak izaten baditu, **bermea berriz egokitu** egingo da. Hori egiteko hamabost eguneko epea egongo da, kontratua aldatzeko ebazpenaren jakinarazpena esleipendunari egiten zaion egunetik zenbatzen hasita..	Cuando a consecuencia de la **modificación** del contrato, experimente variación el valor del mismo, la **garantía será reajustada** en el plazo de quince días, contados desde la fecha en que se notifique a la adjudicataria la resolución de la modificación del contrato.
Berme-epea amaitzen denean (**3 hileko** epea, hartze-agiritik zenbatzen hasita), adjudikazio-hartzaileari bermea itzuliko zaio, osorik edo –bidezkoa bada– zati batean, baldin eta adjudikazio-hartzaileak kontratuko betebehar guztiak beteta baditu.	Finalizado el plazo de garantía (**de 3 meses**, a contar desde el acta de recepción), se procederá a la devolución –total o en su caso parcial– de la garantía a la adjudicataria, si ésta estuviere al corriente en el cumplimiento de todas sus obligaciones contractuales.
II. KONTRATATZEKO PROZEDURA	**II. PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR**
5.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA	**5.- PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN**
Kontratu honen adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egingo da.	La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto.
Administrazioak ahalmen osoa izango du kontratua bere iritzian abantailarik onenak	La Administración tendrá plena facultad para adjudicar el contrato a la proposición

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

eskaintzen dituen proposamenari adjudikatzeko eta horretarako eskaintza ekonomikoak ez du zertan erabakigarria izan. Era beran, lizitazioa hutsik utzi ahal izango du.	que, a su juicio, resulte más ventajosa, sin atender necesariamente al valor económico de la misma. Así mismo, podrá declarar desierta la licitación.
Aurkeztutako eskaintzak baloratzeko orduan, irizpide hauek hartuko dira kontuan:	En la valoración de las ofertas presentadas se tendrán en cuenta los siguientes criterios:
1.- Kudeaketa-proiektua 60 puntu arte.	1.- El proyecto de gestión, hasta 60 puntos.
2.- Eskaintza ekonomikoa 40 puntu arte.	2.- La oferta económica, hasta 40 puntos.
Balio-judizio baten menpe dauden balorazio-irizpideak	Criterios cuya cuantificación depende de un juicio de valor
Kudeaketa-proiektua: **60** puntu arte.	**Proyecto de gestión:** hasta **60** puntos.
- Taberna-jatetxearen ordutegia eta egutegia (astegunak/asteburuak // uda/negua). **10** puntura arte	- Horario y calendario del bar-restaurante (entresemana/fin de semana // verano/invierno), hasta **10** puntos
- Urte sasoi bakoitzean emango diren zerbitzuak, menuak, etab. **20** puntura arte	- Servicios, menús, etc. que se ofrecerán en cada temporada o estación del año,
- Garbiketa eta horren antolaketa. **10** puntura arte	- Limpieza y su organización, hasta **10** puntos
- Baloratzekoak izango dira zerbitzuari lotutako berrikuntzak, ekimen osagarriak edota ingurumen-errespetuari lotutako proposamenak. **10** puntura arte	- Se valorarán las innovaciones respecto al servicio, las iniciativas complementarias o las propuestas relacionadas con el respeto al medio ambiente, hasta **10** puntos
- Zerbitzua emango duten langileekiko edota langileen arteko sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako laneko jazarpena, edo kontratuko prestazioaren onuradunen edo erabiltzaileen aurkako sexu-jazarpena eta/edo indarkeria matxistako egoerak prebenitzeko eta aurre egiteko neurriak baloratuko dira. Neurrien egokitasuna eta eraginkortasuna baloratuko da, baita neurri horiek langileei informatzeko erabiliko diren metodo zein tresnak ere. **10** puntura arte.	- Se valorarán medidas para prevenir y combatir el acoso sexual entre el personal trabajador que vaya a prestar el servicio o respecto al mismo, así como el acoso laboral por razón de sexo o las situaciones de acoso sexual y/o violencia machista contra las personas beneficiarias o usuarias de la prestación contractual. Se valorará la idoneidad y eficacia de las medidas, así como los métodos e instrumentos que se utilizarán para informar al personal trabajador. Hasta **10** puntos.
Kudeaketa proiektuak honako **ezaugarri zein mugak** izango ditu:	**El proyecto de gestión tendrá las siguientes características o límites:**
- Arestian aipatutako formatua errespetatu beharko da; hots, kudeaketa proiektuak bost (5) atal izango ditu, atal bakoitza azpi irizpide bakoitzari dagokiolarik.	- Se deberá respetar el formato anteriormente mencionado, es decir, el proyecto de gestión constará de cinco (5) apartados, correspondiendo cada uno de ellos a cada subcriterio.

I.F.K.: A - 20 / 656948

- DIN A4 formatuko gehienez 20 orrialde izango ditu.	- Tendrá una extensión máxima de 20 páginas en formato DIN A4.
- Arial 12 formatuan, tartea 1,15.	- En formato Arial 12, intervalo 1,15.
- Ezkerreko marjina 3 cm. Eskumakoa 3 cm. Beheko marjina 2 cm , eta goikoak 2 cm.	- Margen izquierdo 3 cm. Margen derecho 3 cm. Margen inferior 2 cm y superior 2 cm.
- Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azala eta aurkibidea. Bai zenbatuko dira, ordea, grafiko, taula edo bestelako irudiak dituzten orrialdeak, baita eranskinak ere.	- No se computarán la portada ni el índice, que permiten una mejor comprensión de la oferta. Sí se computarán las páginas que contengan gráficos, tablas u otras figuras, así como los anexos.
Orrialde kopurua gaindituko balitz, **20. orrialdetik aurrerakoa ez da baloratuko**. Aipatu formatu irizpideak ez errespetatzeak **10 puntura** arteko penalizazioa ekar lezake.	En caso de que se sobrepase el número de páginas, **no se valorará el contenido a partir de la página 20.** En caso de no respetar los criterios de formato, ello podría suponer una penalización de hasta **10 puntos**.
Aipatu irizpideen (B fitxategi elektronikoa) puntuazio OSOAREN % 50 lortzen ez duten proposamenak kanpoan geldituko dira, eta, horren ondorioz, ez zaie beren C fitxategi elektronikoa irekiko.	**Quedarán excluidas aquellas propuestas que no alcancen el 50 % de la puntuación TOTAL de dichos criterios (fichero electrónico B) y, en consecuencia, no se procederá a la apertura de su fichero electrónico "C".**
Formulen aplikazio bidez automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak (C fitxategi elektronikoan)	Criterios evaluables automáticamente mediante aplicación de fórmulas (en fichero electrónico "C")
2.- Eskaintza ekonomikoa: 40 puntura arte.	**2.- Oferta económica:** Hasta 40 puntos.
Puntu guztiak emango zaizkio errentarik altuena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa jarraian azaldutako formulatik aterako da. Lizitazioaren zenbatekoa berdintzen duen eskaintzak 0 puntu lortuko ditu eta hura jaisten duten eskaintzak lizitaziotik kanpo geratuko dira. **Hileko errenta** eskaini beharko da.	Se otorgarán todos los puntos a la propuesta que oferte la renta más alta, puntuándose el resto de propuestas conforme a la siguiente fórmula. La oferta que iguale el importe de licitación obtendrá 0 puntos y las que lo rebajen quedarán excluidas de la misma. Se deberá ofertar la **renta mensual.**
Baloraziorako, honako formula hau aplikatuko da:	La valoración se realizará aplicando la siguiente fórmula:
LP = ET/LE x 40	**PL = OE / OL x 40**
LP: lizitatzailearen puntuazioa	*PL: puntuación de la licitadora*
ET: eskaintzarik txikiena	*OE: oferta más económica*

LE: lizitatzailearen eskaintza	*OL: oferta de la licitadora*
Halaber, lizitatzaileak aplikatu beharreko **hitzarmen kolektiboa** adierazi beharko du.	Así mismo, la licitadora deberá declarar el **convenio colectivo** que se debe aplicar.
Eskaintza ekonomikoak egokia izan beharko du bereziki dagokion hitzarmen kolektiboa aplikatzearen ondoriozko kostu guztiak asetzeko. **Eskaintza batek balio anormalak edo neurriz kanpokoak** barne hartzen dituela joko da honako kasu hauetan:	La oferta económica deberá ser especialmente adecuada para cubrir todos los costes derivados de la aplicación del convenio colectivo correspondiente. Se considerará que **una oferta incluye valores anormales o desproporcionados** en los siguientes casos:
- Lizitatzaile bakarra badago eta hileko errenta baino handiagoa bada, ehuneko 25 unitate baino gehiagotan.	- Si sólo hay una licitadora y es superior a la renta mensual en más de 25 unidades porcentuales.
- Bi lizitatzaile edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino 10 unitate portzentual baino handiagoa eskaini dutenak.	- Cuando existan dos o más licitadoras, aquellas cuya oferta supere en más de 10 unidades porcentuales la media aritmética de las ofertas presentadas.
Neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluan ezarritakoaren arabera, hiru egun balioduneko epea emango da eskaintzaren bideragarritasuna justifikatzeko.	Cuando se identifique una proposición que pueda considerarse desproporcionada o anormal, de acuerdo con lo establecido en el artículo 149 de la Ley de Contratos del Sector Público, se concederá un plazo de tres días hábiles para justificar la viabilidad de la oferta.
6.- LIZITATZAILEAK	**6.- LICITADORAS**
Bergarako Bihargitzarekin zorrik izan ez eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beraien ekonomi eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta lizitazio honi espresuki aplikagarri zaion Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuetakoren bat ere ez badute. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 7. baldintzan ezarritakoak izango dira.	Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas físicas o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, que no mantengan deudas con Bergarako Bihargitza y que acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la Ley de Contratos del Sector Público que es aplicable a la presente licitación. La solvencia se acreditará y evaluará de acuerdo con los medios establecidos en la cláusula 7.
Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkarien kasuan, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten izenean horko kide bat	Las personas físicas o jurídicas podrán actuar por sí o representadas por persona autorizada. En caso de actuar a través de representante, deberán presentar poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica

I.F.K.: A - 20 / 656948

datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiek, gorago aipatutakoek, ordezkariari ere eragiten diote.	concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, a la persona representante le afectan igualmente las causas de incapacidad para contratar citadas anteriormente.
Enpresa lizitatzaileak, gainera, kontratu honen helburuarekin lotura zuzena duten jarduerak egiteko xedea izan beharko du, eta baita kontratua behar bezala burutzeko adinako giza- eta material-baliabideez hornitutako antolamendua ere.	Además, la empresa licitadora deberá tener como finalidad realizar actividades que tengan relación directa con el objeto del presente contrato y disponer de una organización dotada de elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del mismo.
7.- PROPOSAMENAK	**7.- PROPOSICIONES**
Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 71. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuren bat ez badute.	Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la Ley de Contratos del Sector Público.
Halaber, nork bere kabuz edo baimendutako ordezkariaren bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkarien kasuan berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten izenean horko kide bat datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du ahalmena duela horretarako. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.	Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada. En caso de actuar a través de representante, deberán presentar poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, a la persona representante también le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas anteriormente.
Era berean, prozedura ireki hau Bergarako Bihargitzako Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, eta honako atari informatikoan edo webgunean eskuratu ahal izango dira pleguak eta gainontzeko dokumentuak: www.bergara.eus	Este procedimiento abierto se publicará, así mismo, en el Perfil de Contratante de Bergarako Bihargitza, pudiendo obtener los pliegos y el resto de documentación en el siguiente portal informático o página web: www.bergara.eus
Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du enpresariak edo pertsona fisikoak onartu egiten duela baldintzarik gabe plegu honetan jasotako guztia.	Las proposiciones serán secretas y su presentación implica la aceptación incondicional, por parte del/a empresario/a o de la persona física, de todo lo establecido en el presente pliego.
Proposamenen aurkezpena bitarteko	Las proposiciones se presentarán utilizando

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

elektronikoak erabilita soilik egingo da, Kontratugilearen profilean argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazitako epearen barruan – **HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO** epean, lizitazio iragarkia Kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, azken egunean soilik aukera izanda **13:00ak** arte aurkezteko. Epe-bukaerako eguna larunbat, igande edo jaiegun suertatuz gero, hurrengo laneguneko 13:00ak arte luzatuta gelditzen da.	exclusivamente medios **electrónicos,** dentro del plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el Perfil de Contratante –**QUINCE (15) DÍAS NATURALES**, a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación del anuncio de licitación en el Perfil de Contratante–, teniendo en cuenta que el último día de presentación de proposiciones sólo se podrán presentar hasta las **13:00 horas**. En caso de que el plazo finalice en sábado, domingo o festivo, se entenderá prorrogado hasta las 13:00 horas del siguiente día laborable.
Proposamenak elektronikoki aurkezteko informazio eta zehaztasun teknikoak, baita dataren zifratze eta balidatzea ere, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan sartuta daude (www.contratación.euskadi.eus)	La información y las especificaciones técnicas necesarias para la presentación electrónica de las proposiciones, incluido el cifrado y la validación de la fecha, se encuentran alojadas en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi (www.contratación.euskadi.eus).
Zerbitzu horiek erabiltzeak ondokoa esan nahi du:	La utilización de estos servicios supone:
1.- Lizitatzaileak modu telematikoan prestatu eta aurkeztu behar dituela bere eskaintzak.	1.- La preparación y presentación de ofertas de forma telemática por la licitadora.
2.- Sistemak egingo duela eskaintzen zaintza elektronikoa.	2.- La custodia electrónica de ofertas por el sistema.
3.- Plataformaren bitartez irekiko eta ebaluatuko dela dokumentazioa. Eskaintzak bitarteko elektronikoz bidaltzea bi fasetan egin ahalko da: lehenik, eskaintzaren aztarna elektronikoa igorriko da – hori jasotzearekin egintzat joko da aurkezpena ondorio guztietarako -, eta, ondoren, eskaintza bera 24 orduko epean, gehienez ere. Bigarren igorpen hori ez bada adierazitako epean egiten, eskaintza erretiratutzat joko da.	3.- La apertura y evaluación de la documentación a través de la plataforma. El envío por medios electrónicos de las ofertas podrá hacerse en dos fases, transmitiendo primero la huella electrónica de la oferta, con cuya recepción se considerará efectuada su presentación a todos los efectos, y después la oferta propiamente dicha en un plazo máximo de 24 horas. De no efectuarse esta segunda remisión en el plazo indicado, se considerará que la oferta ha sido retirada.
Eskaintzaren aztarna elektronikoa datu-multzo bat da zeinak eskaintzaren edukiarekin argi eta garbi lotzea bermatzen duen, eta eskaintzaren edukian egon daitezkeen aldaketak detektatzea ahalbidetzen, hala haren osotasuna bermatuz. Espedientean txertatu beharreko dokumentuen kopia elektronikoek bete egin beharko dute ondorio horretarako indarrean dagoen administrazio prozedura erkidearen alorreko legedia, bertan ezarritako guztiekin.	Se entiende por huella electrónica de la oferta el conjunto de datos cuyo proceso de generación garantiza que se relacionan de manera inequívoca con el contenido de la oferta propiamente dicha, que permiten detectar posibles alteraciones del contenido de ésta, garantizando su integridad. Las copias electrónicas de los documentos que deban incorporarse al expediente, deberán cumplir con lo establecido a tal efecto en la legislación vigente en materia de procedimiento administrativo común, surtiendo los efectos establecidos en la

I.F.K.: A - 20 / 656948

	misma.
- Erabiltzaileen Laguntza Zentroaren telefono zenbakia: 945 016 298	- Centro de Atención a personas o entidades usuarias, teléfono: 945 016 298
- Interneteko helbidea: http://www.contratacion.euskadi.eus	- Dirección de internet: http://www.contratacion.euskadi.eus
- Posta elektronikoko helbidea: laguntzakpe@euskadi.eus	- Dirección de correo electrónico: laguntzakpe@euskadi.eus
Ezkutukoak izango dira proposamenak, eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela lizitatzaileak plegu honetan aurreikusitako guztia. Lizitatzaileek ezin izango dute aurkeztu aldagairik edo alternatibarik.	Las proposiciones serán secretas y su presentación implica la aceptación incondicional por parte de la licitadora de todo lo establecido en el presente pliego. Las licitadoras no podrán presentar variantes o alternativas.
Hiru **fitxategi elektroniko** aurkeztuko ditu lizitatzaileak, bakoitzean dagokion dokumentazioa txertatuko delarik. Dokumentuek sinatuta egon beharko dute.	La licitadora presentará tres **archivos electrónicos**, incluyendo en cada uno de ellos la documentación correspondiente. Los documentos deberán estar firmados.
"A" Fitxategi elektronikoan, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" izenburupean, ondorengo dokumentu hauek sartuko dira:	**El archivo electrónico "A",** con el subtítulo **"CAPACIDAD PARA CONTRATAR Y SOLVENCIA"**, contendrá los siguientes documentos:
• Norbere izenean nahiz ahaldun moduan, proposamena aurkezten duen pertsonaren Nortasun Agiria, edo egiaztatutako kopia.	• DNI de la persona que presenta la proposición, en nombre propio o como apoderada, o copia autenticada del mismo.
Lizitatzailea pertsona juridikoa baldin bada, eraketa edo aldaketaren eskritura (Merkataritza Erregistroan behar den bezala inskribatua) eta horren kopia kautotua. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, nahikoa izango da lanbide- edo merkataritza-erregistroren batean inskribatuta daudela egiaztatzea, dagokion estatuko legediak betekizun hori eskatzen baldin badu.	Si la licitadora es una persona jurídica, escritura de constitución o modificación (debidamente inscrita en el Registro Mercantil) y copia autentificada de la misma. Cuando se trate de empresarios o empresarias de nacionalidad no española de Estados miembros de la Comunidad Europea, deberán acreditar su inscripción en un registro profesional o comercial cuando este requisito sea exigido por la legislación del Estado respectivo.
Lizitatzaileak norberaren izenean ez diharduenean edo sozietate bat edo pertsona juridikoa denean, beste pertsona edo entitate hori ordezkatzeko ahalorde notariala. Notario-ahalordea behar bezala inskribatuta egon beharko da Merkataritza Erregistroan —horrela behar balitz— edo dokumentu publikoan —pertsonak ordezkatzerakoan—.	Cuando la licitadora no actúe en nombre propio o se trate de sociedad o persona jurídica, poder notarial para representar a la persona o entidad en cuyo nombre concurra. El poder notarial deberá estar debidamente inscrito en el Registro Mercantil, si así corresponde, o en documento público, en caso de representar a personas.
• **Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra** (DEUC). DEUCen formulario normalizatua helbide elektroniko	• **Documento Europeo Único de Contratación** (DEUC). El formulario normalizado del DEUC se halla

honetan eskura daiteke: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es .	disponible en la siguiente dirección electrónica: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es .
Halaber, Bergarako Bihargintzaren Kontratatzailearen Profilean PDF formatuan eta XML formatuan eskura daiteke, lizitatzaileek DEUC betetzeko inportatu ahal izateko.	Asimismo, en el Perfil de Contratante del Bergarako Bihargintza se puede obtener el DEUC en formato PDF y XML para su importación y cumplimentación por parte de las empresas licitadoras.
• Norbere izenean nahiz ahaldun moduan, proposamena aurkezten duen pertsonaren **Nortasun Agiria**. Lizitatzailea pertsona juridikoa baldin bada, eraketa edo aldaketaren eskritura eta horren kopia kautotua. Lizitatzaileak norberaren izenean ez diharduenean edo sozietate bat edo pertsona juridikoa denean, beste pertsona edo entitate hori ordezkatzeko ahalorde notariala aurkeztu beharko du.	• **Documento de Identidad** de la persona que presenta la propuesta, ya sea en nombre propio o como apoderado. Si el licitador fuera persona jurídica, escritura de constitución o modificación y copia autenticada de la misma. Cuando el licitador no actúe en nombre propio o se trate de una sociedad o de una persona jurídica, deberá aportar poder notarial para representar a dicha otra persona o entidad.
• **Aldi Baterako Enpresaburuen Elkarte bat eratzeko konpromisoa** (ABEE), hala dagokionean. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera joaten badira ABEE moduan eratzeko konpromisoarekin, deklarazio bat gehitu beharko da adieraziz hori izenpetzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza zein den, eta, esleipendun ateraz gero, konpromisoa hartzen dutela formalki Aldi Baterako Elkarte bat eratzeko. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere DEUC aurkeztu beharko du.	• **Compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresas** (UTE), en su caso. Cuando dos o más empresas acudan a una licitación con el compromiso de constituirse en Unión Temporal, se deberá aportar una declaración indicando los nombres y circunstancias de los/as empresarios/as que la suscriban, la participación de cada uno/a de ellos/as y que asumen el compromiso de constituirse formalmente en Unión Temporal en caso de resultar adjudicatarias. El citado documento deberá estar firmado por los representantes de cada una de las empresas integrantes de la Unión. En estos casos, cada una de las empresas deberá presentar su DEUC.
• **Atzerriko enpresen deklarazioa**. Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu beharko dute adieraziz Espainiako arlo guztietako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala dagokionean, uko egiten diotela lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari.	• **Declaración de empresas extranjeras.** Las empresas extranjeras deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la licitadora.

I.F.K.: A - 20 / 656948

• **Posta elektronikoko helbide bat jakinarazpen elektronikoen abisua** bidaltzeko, baita errekerimenduak edo eskaerak egiteko, datuak argitzeko, dokumentazio osagarria emateko edo akats konpongarriak daudela jakinarazteko ere (I. Eranskina)	• **Una dirección de correo electrónico** donde remitir el aviso de notificaciones electrónicas, así como para requerimientos o solicitudes de aclaración, documentación complementaria o comunicación de existencia de vicios subsanables (Anexo I).
• **Desgaitasunaren kuotak eta berdintasun-plana** betetzeari buruzko zinpeko aitorpena. 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, langileen % 2k desgaitasunen bat izan behar dute eta horren konpromisoa hartu beharko dute bere gain. 50 langile edo gehiagoko enpresek, aurrekoaz gain, berdintasun-plan bat izan beharko dute eta hori betetzeko konpromisoa hartu beharko dute bere gain (II. Eranskina).	• Declaración responsable sobre cumplimiento de las **cuotas de discapacidad y el plan de igualdad.** Las empresas de 50 o más personas trabajadoras deberán comprometerse a cumplir el requisito de que el 2% de sus empleadas y empleados sean personas con discapacidad. Las empresas de 50 o más personas trabajadoras, además de lo anterior, deberán comprometerse a cumplir con la obligación de contar con un plan de igualdad (Anexo II).
• **Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialen aitorpena**. Enpresa lizitatzaileek adierazi egin beharko dute, hala badagokio, aurkeztutako dokumentu administratibo, tekniko eta datuetatik zeintzuk diren, beraien ustez, konfidentzialtzat hartu beharrekoak. Gainera, gorabehera hau argi eta garbi islatu beharko da (gaininprimatuta, ertzean idatzita edo beste edozein eratan) halakotzat hartutako dokumentuan bertan. Lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke baldin eta hirugarren pertsona edo erakundeei ezagutaraztea haien interes komertzial legitimoen aurkakoa izan badaiteke edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke. Horrelako adierazpenik aurkezten ez bada, ulertuko da ez dagoela izaera hori duten dokumentu edo daturik. (III. Eranskina)	• **Declaración de los documentos y datos de las licitadoras de carácter confidencial.** Las empresas licitadoras tendrán que indicar, si es el caso, qué documentos administrativos y técnicos y datos presentados son, a su parecer, constitutivos de ser considerados confidenciales. Adicionalmente, esta circunstancia deberá reflejarse (sobreimpresa, al margen o de cualquier otra forma) en el propio documento señalado como tal. Los documentos y datos presentados por las empresas licitadoras pueden ser considerados de carácter confidencial cuando su divulgación a terceras personas o entidades pueda ser contraria a sus intereses comerciales legítimos o perjudicar la competencia leal entre empresas. De no aportarse esta declaración se considerará que ningún documento o dato posee dicho carácter. (Anexo III)
• **Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko** ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.	• Certificado de estar al corriente de los pagos con la **Seguridad Social y Hacienda**.
Lizitatzaileak gehienez ere hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko du zuzenketa eraginetarako eskatu zaion dokumentazioa –errekerimendua jasotzen	La licitadora deberá presentar la documentación requerida para la subsanación en un plazo máximo de tres días hábiles a contar desde la recepción

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

denetik kontatzen hasita–. Errekerimendua aipatutako epearen barruan betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzaileak eskaintza erretiratu egin duela eta prozeduratik kanporatua izango da.	del requerimiento. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta y será excluida del procedimiento.
"B" Fitxategi elektronikoan, gutxienez 5. atalean (**BALIO-JUDIZIO BATEN MENPE DAUDEN BALORAZIO-IRIZPIDEAK)** zehaztutako atal guztiak garatu beharko dira.	**El archivo electrónico "B"** deberá desarrollar al menos todos los apartados relatados en el punto 5 **(CRITERIOS CUYA CUANTIFICACIÓN DEPENDE DE UN JUICIO DE VALOR)**.
Inoiz ez da sartuko fitxategi honetan proposamen ekonomikoa edo balorazio irizpide objektiboei dagokien informazioa. Sartuz gero, lizitatzailea prozedura honetatik kanpo geratuko da eta ez da irekiko bere "C" fitxategia.	Nunca se deberá introducir en este archivo electrónico la proposición económica ni información sobre criterios objetivos de valoración. En caso de hacerlo, la licitadora será excluida de este procedimiento y no se abrirá su sobre "C".
"C" Fitxategi elektronikoan, **FORMULEN APLIKAZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEEI DAGOKION ESKAINTZA** sartuko da, IV.Eranskina erabilita.	**En el archivo electrónico "C",** se introducirá la **OFERTA CORRESPONDIENTE A LOS CRITERIOS A VALORAR MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS**, conforme al Anexo IV.
Ez da sartuko fitxategi honetan "B" fitxategian sartu beharreko dokumentazioa. Horietako dokumentuetakoren bat "C" fitxategian sartuz gero ez da baloratuko.	No se introducirá en este archivo electrónico la documentación que ha de introducirse en el archivo electrónico "B". En caso de incluir alguno de dichos documentos en el archivo "C", no será valorado.
8. KONTRATAZIO-MAHAIA	**8. MESA DE CONTRATACIÓN**
Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute:	La mesa de contratación tendrá la siguiente composición:
LEHENDAKARIA:	PRESIDENTE:
- Bergarako Bihargintzako alkate-lehendakaria, edo hark eskuordetuko duena.	- Quien ostente la Alcaldía-Presidencia del Bergarako Bihargintza, o persona en quien delegue.
MAHAIKIDEAK:	VOCALES:
- Bergarako Udaleko Kontu-hartzailea, edo hark eskuordetuko duena.	- La interventora del Ayuntamiento de Bergara, o persona en quien delegue.
- Idazkaria, edo hark eskuordetuko duena.	- La Secretaria, o persona en quien delegue;
- Bergarako UdalekoZerbitzu Orokorretako eta Kontratazioko	- El técnico de Servicios Generales y Contratación del Ayuntamiento de

I.F.K.: A - 20 / 656948

Teknikaria, Kontratazio Mahaiko Idazkari lanak egingo ditu.	Bergara, que realizará las labores de Secretaría de la Mesa de Contratación.
Mahaiaren bileran parte hartu ahal izango dute, aholkularitza-eginkizunetarako, Mahaiak eskatutako udal teknikari arduradun guztiek. Mahaiak, halaber, bidezko iritzitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.	Podrá asistir a la reunión de la Mesa todo el personal responsable técnico municipal que la Mesa solicite para realizar funciones de asesoramiento. La Mesa podrá a su vez solicitar todos los informes técnicos que crea convenientes.
9. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA	**9. CLASIFICACIÓN DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES**
Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan honako jarduketa hauek egingo dira:	Vencido el plazo de presentación de proposiciones se llevarán a cabo las siguientes actuaciones:
1. **"A" FITXATEGI ELEKTRONIKOA IREKITZEA ETA BARRUAN DARAMAN DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA**	**1. APERTURA DEL ARCHIVO ELECTRÓNICO "A" Y CALIFICACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN QUE CONTIENE**
Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, A fitxategi elektronikoa irekiko da, eta dokumentuak badaudela egiaztatuko da; bestela, konpontzeko izapidea egingo du Kontratazio Mahaiak. Mahaiak, aurkeztutako agiriak kalifikatu ondoren eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo ez-eginak zuzendutakoan, zehaztuko du zein diren aukeraketa irizpideei egokitzen zaizkien enpresak eta berariaz adieraziko du nortzuk onartu dituen lizitazioan, nortzuk geratu diren kanpoan eta zergatik geratu diren kanpoan.	Concluido el plazo de presentación de ofertas, se procederá a la apertura del archivo electrónico "A", verificándose que constan los documentos o, en caso contrario, realizando el trámite de subsanación. La Mesa, una vez calificada la documentación presentada y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, procederá a determinar las empresas que se ajustan a los criterios de selección, con pronunciamiento expreso sobre las admitidas a la licitación, las rechazadas y sobre las causas de su rechazo.
2. **"B" FITXATEGI ELEKTRONIKOA IREKITZEA**	**2. APERTURA DEL ARCHIVO ELECTRÓNICO "B"**
"B" fitxategi elektronikoa proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo osteguneko 10:15ean irekiko da, aldez aurretik kontratatzailearen profilean beste data bat zehaztu ezean.	La apertura del archivo electrónico "B" se realizará a las 10:15 horas del jueves siguiente a la finalización del plazo de presentación de proposiciones, salvo que previamente se especifique otra fecha en el Perfil de Contratante.
Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira Kontratatzailearen Profilean (www.bergara.eus), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango	El mantenimiento de esta convocatoria inicial o las modificaciones que puedan darse se publicarán en el Perfil de Contratante (www.bergara.eus), aunque podrá utilizarse cualquier otro medio que se considere adecuado para su

BERGARAKO BIHARGINTZA 98 S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

da.	notificación.
Egitza horretan beharrezko adierazpena egingo da, mahaiak proposamenei emandako kalifikazioari buruz eta lizitaziora onartu direnak identifikatuko dira, baita baztertu direnak ere, eta kasu horretan baztertzeko arrazoiak azalduko dira.	Dicho acto se iniciará con un pronunciamiento expreso sobre la calificación de las proposiciones efectuadas por la mesa, identificando las admitidas a licitación, las rechazadas y, en este caso, las causas de su rechazo.
3. **"C" FITXATEGI ELEKTRONIKOA JENDAURREAN IREKITZEA**	3. **APERTURA PÚBLICA DEL ARCHIVO ELECTRÓNICO "C"**
"B" fitxategi elektronikoa ireki eta barruko dokumentazioa baloratu ondoren "C" fitxategi elektronikoa irekiko da jendearen aurrean, Kontratatzailearen Profilean (www.bergara.eus) adierazitako egun eta orduan.	Tras la apertura y valoración de la documentación contenida en el archivo electrónico "B", se llevará a cabo la apertura pública del archivo electrónico "C" en el día y hora que se indique en el Perfil de Contratante (www.bergara.eus).
"C" fitxategi elektronikoa ireki baino lehen, eskaintza bakoitzean balio-irizpide baten menpe dauden irizpideei eman zaien balorazioa jakinaraziko da modu orokorrean. Xehetasun handiagoarekin jasoko da Kontratazio Mahaiko akta, Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dena.	Con anterioridad a la apertura del archivo electrónico "C", se dará a conocer, de forma general, la valoración asignada a los criterios dependientes de un criterio de valor en cada oferta. Con mayor detalle se recogerá el acta de la Mesa de Contratación, que se publicará en el Perfil de Contratante.
4. **ESKAINTZAK SAILKATZEA**	4. **CLASIFICACIÓN DE LAS OFERTAS**
Behin irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak Mahaiak sailkatu egingo ditu (puntuazio handienekotik gutxienekora) eta kontratua adjudikatzeko proposamena bideratuko du, gehienez ere 2 hilabeteko epean.	Una vez valorados todos los criterios, la Mesa procederá a la clasificación de las proposiciones presentadas, por orden decreciente, y elevará la propuesta de adjudicación, en el plazo máximo de 2 meses.
5. **LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGITEA**	**5. REQUERIMIENTO A LA PRIMERA CLASIFICADA**
Lehenagoko ekintzak egin eta gero eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari Alkatetzatik eskatuko zaio ondoren adierazten den dokumentazioa entregatu dezala hamar laneguneko epean, errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik hasita:	Realizadas las actuaciones anteriores, desde Alcaldía se requerirá a la licitadora que haya presentado la mejor oferta para que, dentro del plazo de diez días hábiles –a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento–, entregue la siguiente documentación:
• **Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa eta kaudimen tekniko edo profesionala**	• **Documentación acreditativa de la solvencia económica y financiera y de la solvencia técnica o**

I.F.K.: A - 20 / 656948

egiaztatzeko dokumentuak: Kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko erantzukizun zibileko poliza bat kontratatu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, gutxienez 300.000 euroko estaldurarekin. Horrekin batera, kontratua gauzatzen den bitartean estaldurari eutsi egingo zaiola bermatzeko adierazpena aurkeztuko du. Halaber, urteko prima ordaindu izan dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.	**profesional:** Para justificar la solvencia económica deberá presentar documento acreditativo de haber contratado una póliza de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 300.000 euros, junto con una declaración en la que se garantice que se mantendrá la cobertura durante la ejecución del contrato. Asimismo, se deberá presentar documento acreditativo de haberse abonado la prima anual.
• **Kaudimen teknikoa edo profesionala** egiaztatzeko, kontratuari atxikiko zaion langileriaren deskribapena jaso beharko da, bakoitzaren Curriculum Vitae-arekin. Baliabide pertsonal hauen deskribapen horretan, honakoa egiaztatu beharko da:	• **Para justificar la solvencia técnica o profesional,** deberá constar la descripción del personal que se adscribirá al contrato, con el Curriculum Vitae de cada persona. En la descripción de estos recursos humanos, se deberá acreditar lo siguiente:
I. Jendaurrean lan egiteko proposatzen diren pertsonek euren euskara-gaitasuna (**B-2 mailako ahozko gaitasuna**) egiaztatu beharko dute beharrezko agiriak aurkeztuta edo, halakorik izan ezean, Udaleko Euskara Zerbitzuak jarritako frogak eginda.	I. Las personas propuestas para trabajar de cara al público deberán acreditar su capacidad lingüística en euskera (**nivel B-2 a nivel oral**) mediante la presentación de los documentos precisos o, en caso contrario, sometiéndose a las pruebas que establezca el Servicio Municipal de Euskera.
Aurkeztutako eta onartutako enpresetatik/pertsonetatik batek ere ez badu egiaztatzen jendaurreko zerbitzua emango duten langileek eskatutako euskara-maila dutenik, adjudikazioa proposamen onuragarriena aurkeztu duen enpresaren alde egingo da eta bi urteko epea emango zaio euskara-maila egiaztatzeko. Epe hori igarotakoan ez badu maila egiaztatu, Bergarako Bihargintzak lizitazio berri bat deituko du. Horrenbestez, adjudikazio-hartzaile berriarekin kontratua sinatutakoan, honako plegu honen bidez adjudikazioa lortu duen enpresarekin sinatutako kontratuaren indarraldia bukatu egingo da, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.	En caso de que ninguna de las empresas o personas presentadas y admitidas acredite que el personal que va a prestar el servicio cara al público tiene el conocimiento de euskera exigido, la adjudicación se realizará a la empresa que haya presentado la proposición más ventajosa y se le otorgará un plazo de dos años para acreditar el nivel de euskera. Si transcurrido dicho plazo no se ha acreditado el nivel, el Bergarako Bihargintza convocará una nueva licitación. Por tanto, cuando se suscriba el contrato con la nueva empresa adjudicataria, finalizará la vigencia del contrato suscrito con la empresa a la que se le haya realizado la adjudicación conforme a este pliego, sin

	derecho a percibir indemnización alguna.
II. Aurkeztutako langileek **elikagaiak manipulatzeko txartela** edukitzea. Agiria aurkeztu beharko da.	II. El personal presentado deberá estar en posesión del **carné de manipulación de alimentos.** Deberá presentarse dicho documento.
III. Antzerako lanetan **2 hilabeteko esperientzia** izan beharko dute langileek.	III. Las personas trabajadoras deberán contar con una **experiencia de 2 meses** en trabajos similares.
• Lizitatzaileak kontratuaren zatiren bat hirugarrenei **azpikontratatzeko** asmoa badu, aurreikusitako azpikontratistak, emango duen zerbitzuaren azalpen laburra eta orotara lizitatzaileak eman beharreko zerbitzuari dagozkion ehunekoak zerrendatu beharko ditu.	• En caso de que la licitadora tenga intención de **subcontratar** alguna parte del contrato a terceros, deberá enumerar los subcontratistas previstos, los servicios que prestarán y los porcentajes que correspondan respecto a la totalidad del servicio a prestar.
• **Ekonomi Jardueren gaineko Zergan (EJZ)**, kontratu-xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta emanda egotearen egiaztagiria, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria gainerako kasuetan; eta kasu bietan ere, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizun-adierazpena aurkeztuko du.	• Acreditación de situación de alta en el **Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE),** en el epígrafe que corresponda al objeto del contrato, mediante la presentación del alta, si se refiere al ejercicio corriente, o del último recibo del IAE, en los demás casos, acompañada en ambos supuestos de una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del referido impuesto.
• Plegu honetako 4. atalean zehaztutako **behin betiko bermea** gordailupean uztea.	• Depósito de la **garantía definitiva** establecida en el apartado 4 del presente pliego.
- **Bergarako Bihargintzarekiko betebeharretan** egunean egotea.	- Estar al corriente **en sus obligaciones para con Bergarako Bihargintza**.
Adierazitako epe horretan errekerimendua zuzen bete ezean, lizitatzaileak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da eta hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera, betiere eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.	De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta, procediéndose en ese caso a recabar la misma documentación a la licitadora siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.
10. ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA	**10. ADJUDICACIÓN Y CONTRATO**
Adjudikazioa, gehienez ere, lizitatzaileak	La adjudicación definitiva se realizará en

I.F.K.: A - 20 / 656948

dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo 5 egun baliodunetan gauzatuko da, betiere lizitatzaileak adierazitako dokumentazioa aurkeztu badu eta behin betiko bermea jarri badu.	un plazo máximo de 5 días hábiles desde que se presente la documentación, siempre y cuando la licitadora haya presentado la documentación indicada y haya depositado la fianza definitiva establecida.
Adjudikazioa gehienez ere 15 eguneko epean argitaratuko da –behin betiko adjudikazioa egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–.	La adjudicación se publicará en un plazo máximo de 15 días, a contar desde el día siguiente a la adjudicación definitiva.
Eskaintza anormaltzat edo neurriz gainekotzat jotzen denean eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokionean) entzun egingo zaio eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa egin beharko du.	La declaración del carácter desproporcionado o anormal de las ofertas requerirá la previa audiencia de la licitadora o, en su caso, licitadoras que las hayan presentado y el asesoramiento técnico del servicio correspondiente.
Kasu horretan, lizitatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organoak proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileari egingo dio adjudikazioa; bestela anormaltzat edo neurriz gainekotzat jotzen ez den proposamenaren alde egingo da adjudikazioa.	En este caso, el Órgano de Contratación, a la vista de la justificación efectuada por la empresa licitadora y de los informes solicitados, acordará la adjudicación a favor de la proposición más ventajosa; en caso contrario, se realizará la adjudicación a favor de la proposición que no resulte desproporcionada o anormal.
Kontratuaren formalizazioari dagokionean, errendamendu-kontratua administrazio-dokumentuan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei igortzen zaienetik **5 egun** igaro baino lehen.	En cuanto a la formalización del contrato, el contrato de arrendamiento deberá formalizarse en documento administrativo no más tarde de los **5 días** desde que se remita la notificación de la adjudicación a las licitadoras.
Adjudikazio-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Bergarako Bihargintza bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta honek kalte-ordainak ordaindu beharko ditu.	En el caso de falta de formalización del contrato por causas imputables a la empresa adjudicataria, Bergarako Bihargintza podrá acordar la resolución del mismo, previa audiencia de la interesada, que deberá indemnizar por los daños y perjuicios causados.
III. KONTRATUA GAUZATZEA	**III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
11. KONTRATUA GAUZATZEA	**11. EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua beteko da zurrun eta zorrotz jarraituta baldintza ekonomiko-administratiboen eta teknikoen pleguek diotenari, eta edozein kasutan ere, Bihargintzako ordezkariek kontratistari agiri horiek diotena burutzeko edo interpretatzeko orduan idatziz emandako jarraibideei.	El contrato se realizará con estricta sujeción a lo establecido en los pliegos de condiciones económico-administrativas y técnicas y, en todo caso, conforme a las instrucciones que, para su ejecución o interpretación, dieran los/as representantes de Bihargintza por escrito a la empresa contratista.

Kontratistak izango du egindako lanaren eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna eta baita kontratua betetzerakoan egiten dituen hutsegite eta akatsek, erabiltzen dituen metodo ezegokiek edo ateratzen dituen konklusio okerrek Bihargintzarentzat edo beste norbaitentzat izan ditzaketen ondorioen erantzukizuna ere. Kontratistak berari egotz dakizkiokeen ekintzengatik hirugarrenei egiten zaizkien kalteen kalte-ordainak ordainduko ditu.	La empresa contratista será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para Bihargintza o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato. La empresa contratista abonará las indemnizaciones por daños causados a terceros por las actuaciones que se le puedan atribuir.
Kontratistak bete egin beharko ditu kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko une bakoitzean indarrean dauden arau guztiak.	La empresa contratista deberá cumplir todas las normas vigentes en cada momento para la prestación de los servicios objeto de este contrato.
Kontratu-hartzailea derrigortuta dago kontratua burutzeko epea betetzera; berandutzak ez du eskatzen Bergarako Bihargintzak aurretik ohartarazi beharrik.	La empresa contratista está obligada a cumplir el plazo de ejecución del contrato, sin que haya de mediar aviso previo del Bergarako Bihargintza por demora.
Kontratista, prestazioa emateko, derrigortuta dago kontratua zuzen betetzeko beharrezkoak diren bitarteko laguntzaile guztiak eta ekipoa jartzera, kontratuan bertan hitzartutako epeetan.	La empresa contratista está obligada a destinar todos los recursos complementarios y equipamientos precisos para la prestación del servicio en los plazos convenidos en el contrato.
Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebehar hauek hartuko ditu bere gain: ordainsariak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharrak betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea –hala egitea dagokionean–; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio-ordainketa barne–; eta baita enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko lan-kontratutik sortzen diren gainontzeko eskubide eta obligazio guztiak ere.	Respecto al personal que ejecutará este contrato, la empresa contratista asume la obligación de utilizar la potestad directiva que corresponde a toda persona empresaria. En particular, asumirá la negociación y pago de los salarios, la concesión de permisos, licencias y vacaciones, las obligaciones legales en materia de prevención de riesgos laborales, la imposición –cuando proceda– de sanciones disciplinarias, las obligaciones en materia de Seguridad Social, incluido el abono de cotizaciones y el pago de prestaciones, así como cuantos derechos y obligaciones se deriven de la relación contractual entre empleado/a y empleador/a.
Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatu beharko du, bere plantillan integratua, eta beste batzuen artean obligazio hauek izango ditu:	La empresa contratista deberá designar al menos una persona como coordinadora técnica o responsable –integrada en su propia plantilla– que tendrá entre sus obligaciones las siguientes:
A.- Kontratuarekin zerikusia duten gauza guztietarako kontratistaren pertsonalak Administrazioarekin egin behar duen	A.- La recepción y transmisión de cualquier comunicación que el personal de la empresa contratista deba realizar a la

I.F.K.: A - 20 / 656948

edozein komunikazio jaso eta emateko orduan, beti izango da koordinatzailearen, teknikariaren edo horretarako izendatu den solaskidearen bidez.	Administración en relación con la ejecución del contrato se realizará a través de la persona coordinadora, técnica o interlocutora designada al efecto.
B.- Enpresaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, batik bat pertsonala lanlekura joan behar denean edo oporrak hartzen dituenean; kontratatutako zerbitzuaren eskaintza ez nahasarazteko.	B.- Controlar el cumplimiento de las normas laborales de la empresa, en particular en materia de asistencia del personal al lugar de trabajo y disfrute de vacaciones, de manera que no se perturbe la prestación del servicio contratado.
C.- Kontratua egitera atxiki diren enplegatuek kontratuari atxikita segitzen ez dutenean, Administrazioari horren berri eman behar zaio, bereziki haiek zeuzkaten lan-bitartekoak modu egokiagoan kudeatu ahal izateko.	C.- Informar a la Administración de las personas empleadas por la contratista que dejen de estar adscritas a la ejecución del contrato, en especial a los efectos de poder gestionar adecuadamente los medios de trabajo de que aquellas hubieran dispuesto.
Hitzartutakoa burutzeari dagokionez, kontratuak duen termino horietako edozein ez ezagutzeak, kontratuaren zati diren dokumentu erantsiak ez ezagutzeak edo Administrazioak onartu dituen mota guztietako Baldintzak edo arauak, jarraibideak edo aginduak ez ezagutzeak, ez du salbuesten kontratista kontratua betetzeko duen bere obligazio horretatik.	En relación con la ejecución de lo pactado, el desconocimiento del contrato en cualquiera de sus términos, de los documentos anejos que forman parte del mismo o de las instrucciones, o pliegos o normas de toda índole aprobadas por la Administración, no eximirá a la contratista de la obligación de su cumplimiento.
Kontratu-hartzailearen arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.	La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la empresa contratista.
Kontratua Bergarako Bihargintzaren zuzendaritzaren, ikuskapenaren eta kontrolaren pean burutuko da, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.	La ejecución del contrato se desarrollará bajo la dirección, inspección y control de Bergarako Bihargintza, quien ejercerá estas facultades tanto oralmente como por escrito.
Bergarako Bihargintzak zerbitzuaren zuzendaritza orokorrari dagokionean dituen eskumen orokorrez gain, kontratua behar bezala gauzatzeko jarraibide orokorrak zerbitzu horren ardura daraman teknikariaren bidez emango dira, besterik jakinarazten ez bada behintzat.	Sin perjuicio de las prerrogativas generales de Bergarako Bihargintza en lo que a la dirección general del servicio se refiere, el otorgamiento de instrucciones generales para la ejecución y buen fin del contrato se realizará a través del técnico o técnica encargado/a de dicho servicio, salvo notificación en contra.
Kontratu-hartzaileari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz Bergarako Bihargintzak uste badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.	Cuando, a juicio de Bergarako Bihargintza, por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, Bergarako Bihargintza podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para la correcta ejecución del mismo.

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

12. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK	12. OBLIGACIONES LABORALES DE LA CONTRATISTA
Enpresa kontratu-hartzaileak bete egin behar ditu lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak; eta aipatutakoak bete ezean, Bergarako Bihargintza salbuetsita geldituko da horren inguruko edozein erantzukizunetatik. Era berean, behartuta dago, dagokion neurrian, honako hauek ere betetzera: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartu zuena); martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa (Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa); azaroaren 8ko 31/1995 Legea (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa); Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua (urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa) eta era berean, kontratua gauzatzen den bitartean promulgatuko daitezkeen araudiak aipatutakoen inguruan edo beste batzuk direla.	La empresa contratista está obligada al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, quedando Bergarako Bihargintza exonerado de responsabilidad por dicho incumplimiento. Asimismo, en la medida que le corresponde, está obligada al cumplimiento del Real Decreto Legislativo 1/2013 –de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de Derechos de las Personas con Discapacidad y de su Inclusión Social–, de la Ley Orgánica 3/2007 –de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres–, de la Ley 31/1995 – de 8 de noviembre, sobre Prevención de Riesgos Laborales–, y del Reglamento de los Servicios de Prevención –aprobado por Real Decreto 39/1997ko, de 17 de enero–, así como de las normas que en relación con lo dicho u otras se promulguen durante la ejecución del contrato.
13. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK eta KONTRATUAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK	**13. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN y OBLIGACIONES ESENCIALES DEL CONTRATO**
Kontratistak zein azpikontratistek kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek bete beharko dituzte:	Deberán ser cumplidas tanto por el contratista como por los respectivos subcontratistas las siguientes condiciones especiales de ejecución:
Sozialak: Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak, lan-arlokoak, gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak.	**De tipo social:** El presente contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.
Kontratua gauzatu bitartean, kontratistak hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotzen den lansaria ordaindu beharko du gutxienez, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko lansaria inola ere ez da hura baino txikiagoa izango. Enpresaburuaren	La empresa contratista deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar como mínimo el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior

I.F.K.: A - 20 / 656948

eta langileen artean akordioren bat balego, hura errespetatu beharko du enpresak.	a aquel. En caso de haber un acuerdo entre empresario/a y personal trabajador, la empresa deberá respetarlo.
Datuen babesari buruzkoa: kontratu honek bete egin behar ditu datuen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudia, baita eragile kontratuan ezarritako xedapenak ere.	**Relativa a la protección de datos:** el presente contrato se halla sujeto al cumplimiento de la normativa estatal y de la Unión Europea en materia de protección de datos, así como de las disposiciones establecidas en el contrato de encargado.
Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa: kontratu honek bete egin behar ditu lan arriskuen prebentzioari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudia, baita Bergarako Bihargintzak agindutako babes neurriak ere. Halaber, Bihargintzak eskatutako informazioa zehaztutako epean ematea exekuzioko baldintza berezia izango da.	**Relativa a la prevención de riesgos laborales:** el presente contrato se halla sujeto al cumplimiento de la normativa estatal y de la Unión Europea en materia de prevención de riesgos laborales, así como de las medidas de protección ordenadas por Bergarako Bihargintza. Además, facilitar la información requerida por Bihargintza en el plazo establecido constituye una condición especial de ejecución.
Hizkuntzari buruzkoa: gauzatzeko baldintza berezia da baldintza agiri teknikoetan jasotako hizkuntza klausularen betetzea.	**Relativa a la lengua:** el cumplimiento de la cláusula lingüística recogida en los pliegos técnicos es una condición especial de ejecución.
Klausula horiek betetzea kontratuaren **funtsezko betebeharra** da; beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da. Halaber, funtsezko betebehar izaera dute honakoek:	El cumplimiento de estas cláusulas es un **requisito esencial** del contrato, por lo que su incumplimiento será causa de resolución del contrato. Asimismo, tienen carácter de obligaciones esenciales:
- Eskaintza tekniko zein ekonomikoan proposatutakoak betetzea.	- El cumplimiento de los términos propuestos en la oferta técnica y económica.
- Langileen hizkuntza gaitasuna.	- La competencia lingüística del personal.
14.- BAIMEN, LIZENTZIA ETA AUTORIZAZIOEN KUDEAKETARI BURUZKO BETEBEHARRAK	**14.- OBLIGACIONES RELATIVAS A LA GESTIÓN DE PERMISOS, LICENCIAS Y AUTORIZACIONES**
Kontratistak zerbitzua hasi eta gauzatzeko beharrezkoak diren eta ezein erakunde publiko zein pribaturen arauetan xedatuta dauden baimen, lizentzia eta autorizazioak kudeatzeko betebeharra izango balu Bergarako Bihargintzari horretarako behar dituen dokumentuak eskatuko dizkio.	En caso de que la empresa contratista estuviera obligada a gestionar los permisos, licencias y autorizaciones establecidas en las normas de cualquier organismo público o privado que sean necesarias para el inicio y ejecución del servicio, solicitará a Bergarako Bihargintza de Bergara los documentos que sean necesarios para ello.

BERGARAKO BIHARGINTZA, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

15. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE	15. RESPONSABILIDAD DE LA CONTRATISTA POR DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO
Kontratistaren ardura izango da zerbitzua burutzearen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea.	La contratista será responsable de los daños y perjuicios que deriven de la prestación del servicio.
16. KONTRATUA ALDATZEA	**16. MODIFICACIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua aldatzeko kausarik ez da aurreikusten.	No se prevén causas de modificación del contrato.
17. KONTRATUAREN LAGAPENA (ZESIOA)	**17. CESIÓN DEL CONTRATO**
Kontratu honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio adjudikazio-hartzaileak baldin eta Bergarako Bihargintzaren adostasuna badago.	Los derechos y obligaciones dimanantes del presente contrato podrán ser cedidos por la adjudicataria a un tercero con el consentimiento de Bergarako Bihargintza.
18. DATU PERTSONALEN BABESA	**18. PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL**
Kontratua gauzatzeko arduradunen, ordezkarien edo harremanetarako pertsonen datu pertsonalak une bakoitzean indarrean dagoen datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera tratatuko dira. Emandako datu pertsonalen tratamenduaren helburua hau da: kontratuak gauzatzeko Bergarako Bihargintzak egiten dituen administrazio-kontratazioko deialdietara eskaintzak aurkezterakoan jasotako informazio pertsonala kudeatzea.	Los datos personales de los/as responsables, representantes o personas de contacto para la ejecución del contrato serán tratados conforme a la normativa de protección de datos personales vigente en cada momento. La finalidad del tratamiento de los datos personales aportados es la gestión de la información personal relativa a la presentación de ofertas a las convocatorias de contratación administrativa para la ejecución de contratos realizadas por Bergarako Bihargintza.
Datuen tratamendua honako hauek legitimatzen dute: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) eta c) artikuluek, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak.	El tratamiento de datos se encuentra legitimado por el artículo 6.1.e) y c) del Reglamento General de Protección da Datos y la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos de Sector Público.
Datuen hartzaileak legez ezarritakoak eta tratamendu honen esparruan aplikatzekoak direnak dira.	Los/as destinatarios/as de los datos son los/as establecidos/as legalmente y de aplicación en el ámbito de este tratamiento.
Eragindako pertsonek beraien eskubideak baliatu ahal izango dituzte nork bere	Las personas afectadas, respecto a sus datos personales, podrán ejercer los

I.F.K.: A - 20 / 656948

datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko edo haien aurka egiteko, bai eta datu-babesaren alorreko araudiaren arabera aplikagarri diren gainontzeko eskubideak baliatu ere, tratamenduaren arduradunaren aurrean: Bergarako Bihargintza	derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, y demás derechos que resulten aplicables conforme a la normativa en materia de protección de datos, ante la persona o entidad responsable del tratamiento: Bergarako Bihargintza
Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratuko balira, kontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarritik datozen eginbeharrak bete beharko ditu: Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari eta horren garapen-araudiari buruz.	En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, la contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional Vigésima Quinta de la Ley de Contratos del Sector Público: Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales, y su normativa de desarrollo.
Kontratistak udalaren jarraibideen arabera tratatuko ditu kontratua dela-eta eskuratzen dituen datu pertsonal automatizatuak eta ez ditu aplikatuko, ez erabiliko bertan agertzen den xedea ez den beste baterako, eta ez dizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, ezta kontserbatzeko ere.	La empresa contratista tratará los datos automatizados de carácter personal que obtenga por razón del contrato conforme a las instrucciones del Bergarako Bihargintza y no los aplicará o utilizará con fin distinto al que figura en el mismo, ni los comunicará, ni siquiera para su conservación, a otras personas.
Kontratuaren prestazioa amaitu ondoren, tratatutako datu pertsonalak udalari eman beharko zaizkio, baita tratatzeko moduko datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumentu ere.	Una vez cumplida la prestación contractual, los datos de carácter personal tratados deberán ser entregados al Bergarako Bihargintza, al igual que cualquier soporte o documento en que conste algún dato de carácter personal objeto de tratamiento.
Enpresa adjudikazio-hartzaileak, kontratuaren baldintzak urratuz, beste xede baterako bideratu, jakinarazi edo erabiltzen baditu datuak, orduan tratamenduaren erantzuletzat ere hartuko da, eta egin izan ditzakeen arau-hausteez erantzungo du.	En el caso de que la empresa adjudicataria destine los datos a otra finalidad, los comunique o los utilice incumpliendo las estipulaciones del contrato, será considerada también, responsable de tratamiento, respondiendo de las infracciones en que hubiera incurrido.
Kontratu honen bidez ezagutu ditzaketen datuei buruz enpresa kontratista eta bere langileak espresuki behartuta daude datu guztiak zeharo isilpean mantentzera (datu pertsonalak barne).	La empresa contratista y su personal quedan expresamente obligados a mantener absoluta confidencialidad sobre los datos (incluidos los de carácter personal) que pudieran conocer con ocasión del contrato.
19. KONTRATISTAREN EZ-BETETZEAK, ETA EZ-BETETZEENGATIK KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK	**19. INCUMPLIMIENTOS DE LA CONTRATISTA Y PENALIDADES A LA CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO**
Honako hauek ez-betetzeak dira:	Tendrán consideración de incumplimiento:

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

Prestazioen burutzapen partziala dela-eta	**De la ejecución parcial de las prestaciones**
Kontratistak, beran leporatu dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan ezarritako prestazioen exekuzio partziala betetzen ez badu, Bergarako Bihargintzak bi aukera ere izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo egun bakoitzeko penalizazioak ezartzea, egunean 0,60 euroko proportzioan, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.	Cuando la empresa contratista, por causas imputables a la misma, hubiere incumplido la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el contrato, Bergarako Bihargintza de Bergara podrá optar, así mismo, por su resolución, con pérdida de la garantía, o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 0,60 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato.
Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.	Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, el Órgano de Contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.
Beste ez-betetze batzuk (arinak, larriak eta oso larriak) eta penalizazioak:	**Otros incumplimientos (leves, graves o muy graves) y penalizaciones:**
a) Ez-betetze arinak:	**a) Incumplimientos leves:**
- Plegu honetan jasotako arau orokor eta zehatzak ez betetzea, ez-betetze larri edo oso larritzat jotzen ez direnean.	- El incumplimiento de las normas generales y específicas recogidas en el presente pliego, cuando no se consideren incumplimientos graves o muy graves.
- Zerbitzuak ematen hasteko zehaztutako egutegi eta ordutegiarekiko gehienez ere ordubeteko atzerapena izatea, hilabete bakoitzean bi aldiz baino gehiago, edo urte bakoitzean hamar aldiz baino gehiago.	- Un retraso máximo de una hora respecto al calendario y horario de inicio de la prestación de servicios, superior a dos veces por mes o diez veces por año.
- Bergarako Bihargintzari jakinarazi gabe zerbitzua etetea, edozein dela arrazoia, eta betiere ez denean gertatzen 3 aldiz baino gehiago urte natural bakoitzean.	- La interrupción del servicio por cualquier causa sin comunicarlo a Bergarako Bihargintza, siempre que no se produzca más de 3 veces por año natural.
- Zerbitzua ematen duten langileek uniformetasun-falta edo -eskasia izatea; jantzigintzan erabilitako materiala dela-eta, egoera edo itxura eskasa dutelako; eta betiere kontratu-hartzaileak akatsok 48 orduko epean zuzentzen dituenean —antzemandako akatsa jakinarazten zaionetik kontatzen hasita—.	- La falta o deficiencia de uniformidad en el personal encargado de la prestación de los servicios, por la mala presentación y estado por causa del material empleado en la confección y siempre que estas deficiencias sean corregidas por la contratista dentro del plazo de 48 horas desde que se le comunique la deficiencia observada.
- Zerbitzuaren hartzaileekin adeitsu ez izatea.	- Descortesía con las personas a las que se destina el servicio.
- Arduraduna aurkitu ezinik ibiltzea, betiere ez denean gertatzen 4 aldiz baino gehiago urte natural bakoitzean.	- La falta de localización de la persona responsable, siempre que no exceda de 4 veces en cada año natural.
b) Ez-betetze larriak:	**b) Incumplimientos graves:**

I.F.K.: A - 20 / 656948

- Kontratuaren xede den zerbitzua emateko moduari dagokionez, arduradunak edo haren ordezkoak emandako aginduak edo plegu honetan ezarritakoak behin eta berriz bete gabe uztea. Bi hilabetean zehar birritan edo urtebetean lau aldiz errepikatzea hartuko da errepikapentzat.	- En lo que respecta al modo de prestar el servicio objeto del contrato, incumplir reiteradamente las órdenes dadas por el/la responsable o persona que lo sustituya o las prescripciones establecidas en el presente pliego. Se entenderá que existe reiteración cuando se repita en dos ocasiones durante dos meses, o en cuatro ocasiones durante un año.
- Osasun arloko aginduei jaramonik ez egitea edo publikoarentzat osasungaitz, arriskutsu edo gogaikarri diren egoerak ekiditeko Lehendakaritzatik emandako aginduak ez betetzea.	- La inobservancia de las prescripciones sanitarias o incumplir las órdenes emitidas desde Presidencia para evitar situaciones insalubres, peligrosas o molestas para el público.
- Kontratistarentzat gasturik sortu gabe zerbitzuaren detaileen inguruan aldaketak egiteko Bergarako Bihargintzak hartutako erabakiak ez betetzea.	- Incumplir los acuerdos o decisiones de Bergarako Bihargintza sobre variaciones de detalle en el servicio siempre que no supongan gasto para la contratista.
- Bergarako Bihargintzak emandako edo adostutako zerbitzuaren ordutegia/egutegia hiru aldiz ez betetzea.	- El incumplimiento, en tres ocasiones, del horario/calendario de servicio acordado con Bergarako Bihargintza y que le haya sido entregado por el mismo.
- Antzemandako akatsak zuzentzeko Bergarako Bihargintzak emandako aginduak justifikaziorik gabe bete gabe uztea.	- La desobediencia inexcusable a las órdenes dictadas por Bergarako Bihargintza para subsanar deficiencias detectadas.
- Bi ez-betetze arin egitea 6 hilabeteko epean.	- Incurrir en dos incumplimientos leves en un plazo de 6 meses.
c) <u>Ez-betetze oso larriak:</u>	**c) <u>Incumplimientos muy graves:</u>**
- Zerbitzua eskaintzerakoan akats edo irregulartasun nabarmenak izatea, pleguan, kontratuan edo Bergarako Bihargintzak emandako aginduetan ezarritako baldintzetan ez-betetze larri edo arina ez denean.	- Cometer errores o irregularidades evidentes en la prestación del servicio, siempre que no sea incumplimiento grave o leve de las condiciones establecidas en el pliego, en el contrato o por orden del Bergarako Bihargintza.
- Kontratu-hartzaileak edo bere langileek zerbitzuko erabiltzaileengandik edo partikularrengandik edozein lansari edo oparirik jasotzea	- Que la adjudicataria o su personal perciba de personas usuarias del servicio o particulares cualquier remuneración o regalo.
- Plegu hauetan jasotako betebehar bat ez betetzea *<u>oso larritzat</u>* kalifikatuta dagoenean pleguotan.	- Incumplir una obligación recogida en los presentes pliegos, cuando esté calificado en los mismos como *<u>muy grave</u>*.
- 6 hilabeteko epean ez-betetze larri bat baino gehiago egitea.	- Incurrir en más de un incumplimiento grave en un plazo de seis meses.
- Hilabete batean errenta edota argindarra ez ordaintzea.	- Por impago de la renta o de la electricidad de un mes.
- Kontratu honen eskubide eta betebeharrak alokatu, zeditu, edota eskualdatzea,	- Por alquiler, cesión o transmisión de los derechos u obligaciones de este contrato sin

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

Bergarako Bihargintzaren baimenik gabe.	autorización de Bergarako Bihargintza.
d) Penalizazioak	d) Penalizaciones
Arestian aipatutako ez-betetzeek honako penalizazio hauek izan ditzakete:	Los incumplimientos regulados anteriormente podrán sancionarse con las penalizaciones siguientes:
- Ez-betetze arinak: 60 eurotik 125 eurora.	- Incumplimientos leves: de 60 a 125 euros.
- Ez-betetze larriak: 126 eurotik 400 eurora.	- Incumplimientos graves: de 126 a 400 euros.
- Ez-betetze oso larriak: 401 eurotatik 900 eurotara edota alokairu kontratua bertan behera uztea.	- Incumplimientos muy graves: de 401 a 900 euros o dejar sin efecto el contrato de alquiler.
Erabakia berehala betearaztekoa izango da; eta diru-kopuru horiek kobratzeko, kontratistari egin behar zaizkion ordainketetatik –ordainketa osotik zein zatikakoetatik– dagozkion kenketak egingo zaizkio, eta aipatutako ziurtagiri horietatik ezin bazaio kenketarik egin, ezarrita duen bermetik kenduko zaio.	El acuerdo será inmediatamente ejecutivo y se hará efectivo mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse a la empresa contratista o sobre la garantía que en su caso se hubiese constituido, cuando no puedan deducirse de las mencionadas certificaciones.
Edozein kasutan ere, penalizazioak ezarri aurretik, enpresa adjudikazio-hartzaileari entzunaldia emango zaio.	En todo caso, previamente a la imposición de penalizaciones se dará audiencia a la empresa adjudicataria.
20. KONTRATUA BERTAN BEHERA LAGATZEKO ARRAZOIAK	**20. MOTIVOS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak hauek izango dira:	Serán motivos de resolución del contrato:
- Urte bateko epean bi arau-hauste oso larri egitea edo nahikoa esangura duen arau-hauste oso larri bat egitea. Esangura handikoa kontsideratuko da hileko errenta ez ordaintzea edota kontratu honen eskubide eta betebeharrak alokatu, zeditu, edota eskualdatzea, Bergarako Bihargintzaren baimenik gabe.	- La comisión en el plazo de un año de dos infracciones muy graves o de una infracción muy grave con significación relevante, considerándose de tal carácter el impago de la renta mensual o el alquiler, cesión o transmisión de los derechos y obligaciones de este contrato sin el consentimiento de la Bergarako Bihargintza.
- Dokumentazio faltsua aurkeztea.	- La falsedad documental.
- Betebehar laboralak, tributukoak edo Gizarte Segurantzakoak ez betetzea.	- Incumplir sus obligaciones laborales, tributarias y de la Seguridad Social.
- Bi aldeek 3 hilabeteko aurrerapenarekin hala adostuz gero.	- Por acuerdo de ambas partes con 3 meses de antelación.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. eta 313. artikuluetan jasotakoak.	- Los establecidos en los artículos 211 y 313 de la Ley de Contratos del Sector Público.
Kontratua adjudikazio-hartzaileari egotzi dakiokeen arrazoiren batengatik eteten bada, ezarritako behin betiko fidantza galduko du.	En caso de que se resuelva el contrato por causas imputables a la empresa adjudicataria, esta perderá la fianza definitiva depositada.

I.F.K.: A - 20 / 656948

21. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK	**21. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN**
Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.	Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la Ley de Contratos del Sector Público, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	**IV.- NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE**
22. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA	**22. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO**
Plegu honen arabera egiten den kontratua pribatua izango da, eta, beraz, plegu honetan jasota ez dagoenetan, Kode Zibilean eta Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 22ko 29/1994 Legean jasotakoa aplikatuko da, azken lege horren III. tituluan aurreikusitakoa izan ezik.	El contrato que en base a este pliego se realice tendrá carácter privado, por lo que resultará de aplicación, en lo que no esté recogido en el presente pliego, el Código Civil y la Ley 29/1994, de 22 de noviembre, sobre los Arrendamientos Urbanos, salvo lo previsto en el título III de dicha ley.
27. JURISDIKZIO ESKUDUNA	**27. JURISDICCIÓN COMPETENTE**
Kontratutik sortzen diren auziak jurisdikzio zibilaren menpe egongo dira.	Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción civil.
24. KONTRAESANA DOKUMENTAZIOAREN ARTEAN	**24. CONTRADICCIÓN EN LA DOCUMENTACIÓN**
Kontratatzailearen profilean argitaratzen diren agiri teknikoen, arrazoizko txostenaren, administrazio-agirien edo gainerako agirien artean desadostasunik balego, Baldintza Administratibo Zehatzen Pleguko xedapenak gailenduko dira.	En caso de discrepancia entre el Pliego de Condiciones Técnicas, el informe razonado, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, o demás documentos que se publiquen en el Perfil de Contratante, prevalecerán las disposiciones del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

DILIGENTZIA: Jasota gera dadila Bergarako Agorrosin kiroldegiari erantsitako taberna-jatetxearen alokairua adjudikatzeko baldintza administratibo partikularren plegu hau Bergarako Bihargintza 98 S.A.ren Administrazio Kontseiluak onartutakoa dela 2024ko apirilaren 22an.	*DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente pliego de cláusulas administrativas particulares para la adjudicación del alquiler del bar-restaurante anexo al polideportivo Agorrosin de Bergara ha sido aprobado por el Consejo de Administración de Bihargintza 98 S.A. de Bergara el 22 de abril de 2024.*
Bergaran, 2024ko apirilaren 22an	En Bergara, a 22 de abril de 2024
IDAZKARIA	LA SECRETARIA

I.F.K.: A - 20 / 656948